

Erio bai zital ta atzpar gogor! Guk emen hizi nai biotzez maite doguzanakaz, eta arek ixilka daroaskuz Ta onek —berezkoa baita— odoletan biotza izten Oraindik zitalago dogu euskaltzaleokaz, gazterik illakolert baitira gure idazle ta olerkari geienak. Ona zerrenda argia ez makala geure ezagunakaz osotuta: Zubigar, Eltzo beti Arruti, Errenderi, Lizardi, Loramendi, Markiegi, Lau axeta, Tapia-Perurena, Manterola ta Gerrika-Etxebat rria karmeldar gazte biak, eta abar.

«Orixe» etzan ain gazte, atzo goizekoa. 1888-XII-6'an Orexa'n jaioa genduan da. Ba-ebazan, beraz, ber urteak. Lanerako, alan be, iñoi zkorik argi ta gogo tsuen aurkitzen zan. An Zabalegi landetxe zoraga rrian, Donosti'tik urre, udabarriiz egin neutson age rraldian onela iñostan: «Soiña dut. egia, makal sama, baiña anima kementsu». Olerki-sorta bat, mistika gaiez, esku artean ebillen, baita pilosopi auzi batzuk eta «Jainkoaren Billan» liburu ederrari azken-ikutu emotea be.

Baiña, 1961'go uztaren 25'an, il baiño amalau egun lenago egin eustan idazkian au iñohan: «Ni osasune makal, sendagailu barriakaitik edo. Bapere ez deu kot kemenik bearrerako. Etorriko ete iata, datorre illabete ortan «Jainkoaren billan» kopiatzez amaitzet dodan? Neke egiten iata kopiak ataratea». Ez da arritzekoa, erio bai ebillen aren inguru, gosemin. Larori —atsegin yakona noski— berak azkenez orraztu ta niri emotekotan zan, nik argitaratzeko. Ez ebarizan astirik dana amaitzeko, ots, kopiatzea.

Azken-urteotan guztiz mistikara emona egoan. Ga ortaz ziran oraingo bere olerkiak be. Bein adiera, neutson: «Neuk egingo dautzut eun olerki oberena kaz txorta txiki bat!». Eta berak: «Ez, ori ez dut na bizi naizelarik; neu nabil, gaiñera, olako zerbaiz osatzentz; baiña denak nai ditut mistikoiak». Sail orta rako egndakoetariko batzuk argitara ditu OLERTI'k fir

Igazitako dagonillaren 9'an aldatu eban Jaunak irle BARNEMUINETAN bereziki onen goxo ta sakon aker abestu eban Jaunak, bere atsegien dirdaitsura. Urren gu go atsaldez Añorga'ko eleizan egin ziran aren omeluz nezko illetak, jentetza and:a —apaiz, praille, errita —ainbat adiskide min— bertan zalarik.

Danok dakigunez, aren luma errezz, txairo, sakon tane erlantzez aberats genduan. Utsune andia itxi dausku euskal zelaian, nekez orniduko dana. Olerti, pilosop ta mistikagaiak oso eder yakozan. Bikain litzake guz tiontzat aren idazlan guztiak bilduma batzueta —olerti, mistika ta pilosopi-gaiak— argitara emotea Goian bego.

A. O.